BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

1260

16/2012 EBAZPENA, martxoaren 6koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena; honen bitartez, Lutxana Barakaldoko (Araba) Befesa Desulfuración SA enpresaren instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana indarrik gabe uzten duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakia argitara dadila xedatzen da.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2012ko martxoaren 6an egindako bileran, Lutxana-Barakaldoko Befesa Desulfuración SAren instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana indarrik gabe uzten duen erabakia hartu zuen. Orain, behar den publikotasuna emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Lutxana-Barakaldoko (Bizkaia) Befesa Desulfuración SAren instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana indarrik gabe uzten duen erabakia –ebazpen honen eranskin modura datorrena– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 6a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK MARTXOAREN 6AN EMANDAKO 16/2012 EBAZPENARENA.

ERABAKIA, LUTXANA-BARAKALDOKO (BIZKAIA) LUTXANA-BARAKALDOKO BEFESA DESULFURACIÓN SA-REN INSTALAZIOEN KANPO LARRIALDIETAKO PLANA INDARRIK GABE UZTEN DUENA.

Lutxana-Barakaldoko (Bizkaia) Befesa Desulfuración SA enpresaren instalazioek badute Kanpo Larrialdietako Plana, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko irailaren 13ko Erabakiaren bidez onartua, izan ere, uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuan jasotako arautegiak eta 119/2005 eta 948/2005 errege-dekretuek eragiten baitiote.

Instalazio horiek behin betiko ixteko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailetik jakinarazpena jaso da, Herrizaingoko sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak aurretik hala erabakita.

ERABAKIA

«Lehenengoa.– Lutxana-Barakaldoko (Bizkaia) Befesa Desulfuración SA enpresaren instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana indarrik gabe uztea, zein Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu baitzuen 2006ko urriaren 24an hartutako Erabakiz (2006ko abenduaren 18ko EHAA, 239. zenbakia). Izan ere, enpresa, instalazioetan egindako aldaketen ondorioz, kanpoko larrialdietako plana izan beharretik salbuetsita dago.

Bigarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritzak erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emango du».